



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko martxoaren 13a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailearen 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena. Proposamena bazter utzia (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, ustelkeria desagerrarazte aldera Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bazterketarik gabeko elkarriketa politiko eta sindikala abiaraz dezan, krisi ekonomikoari aurre egiteko politikei ekiteko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait lege alda ditzan, enpresa publikoetako zuzendaritza karguetan daudenek edo arduradun nagusiek ez dezaten jaso Gobernu kontseilariak baino ordainsari handiagorik. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPekin sinatu beharreko hitzarmenean kontusail bat jaso dezan, “Esperientziaren Ikasgela” izeneko ikastaro monografikoak ordaintze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur eskola publikoetan sartzeko arauak alda ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa eta elkartasuna adierazten baitie pertsona desagertuen sendiei, eta bereziki M^a Puy Pérezen sendiari. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko ugalkortasun eta laguntza bidezko ugalketako unitatean teknika berriak ezartzeko prozesuari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroan ingeles hiztunen hizkuntza erkidegorik dagoen, 2009ko lan eskaintza publikoan ingeleseko proba bat egitea beharrezkoa egiteko adinakoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Castejóngo Udalak eta Eléctrica de la Ribera del Ebro, S.A.k herri horretako zentral termikoen hirilur kontribuzioari buruz sinatutako akordioari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (12. or.).
- Galdera, 10/2008 Foru Legea onetsi ondotik haurdunaldia nahita eteteari buruz Osasun Departamentuak emandako urratsei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde andreak egina (13. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak Zangozako osasun etxeko errotulazioa gaztelania hutsean jartzeko arrazoiari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, A ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (14. or.).
- Galdera, B ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, British ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (16. or.).
- Galdera, D ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (17. or.).
- Galdera, G ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (18. or.).
- Galdera, jakiteko ea La Olivako monasterioko fraide zistertarrei monasterioaren lurren eta instalazioen erabilera laga zaien, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako herrietan dauden karobieki buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (19. or.).
- Galdera, jakiteko nola egiten den Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen arteko banaketa, zergadunak bi laukitxoak markatzen dituenean, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (20. or.).
- Galdera, eremu mistoan eta euskalduneari irratifrekuentziak gaitzeari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (21. or.).
- Galdera, bidezainen etxeak Altsasuko Udalaren esku uzteari buruzkoa. Galdera aldatzea (21. or.).
- Galdera, jakiteko ea krisiaren aurkako neurriak hartzean kontuan hartu ote den generoa. Galdera erretiratzea (22. or.).
- Galdera, Museoen Foru Legeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako dokumentu ondareari buruzko Foru Legea Parlamentuan aurkezteko epeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ez duen ordaindu 2007ko maiatzeko uholdeek Etxalaren eragindako kalteen gastuen %100. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena.

PROPOSAMENA BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Batzilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruz Hezkuntza Batzordeak 2009ko martxoaren 3an egindako bilkuran onetsitako irizpen negatiboa ikusita, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez eta batzordeetako irizpen negatiboei buruzko 2008ko maiatzaren 12ko lehendakariaren erabakiarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Aipatu foru lege proposamena baztertu izanaren berri izan zuela adieraztea.
2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Irizpen negatiboa

Hezkuntza Batzordeak 2009ko martxoaren 3an egindako bileran hartutakoa.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu zuen. Foru Lege proposamen horri dagokionez, ezezkoa eman zaio inolako testu onesteari, eta, beraz, aipatu foru lege proposamena bazter utzia gelditzen da.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, ustelkeria desagerrarazte aldera Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, ustelkeria desagerrarazte aldera Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Maiorga Ramirezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduren 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioen azalpena

Ustelkeria, irregulartasunak funts publikoen kudeaketan, mesedekeria, funtzionario-eroskeria, prebarikazioa... Sistema demokratikoa galbideratu eta herritar askok sistema politikoan eta politikaren diziplina noblean duten konfiantza galaraztea dakarten gaitzak dira.

Historian zehar, munduko zibilizazio eta toki desberdinetan, ustelkeria kasuak gertatu izan dira politikoen eta erakundeen jardunean, eta, egiazta daitekeen moduan, gertakari horiek guztiek sistema politikoan ahultzea eragin dute eta, askotan, sistema horien gainbeheraren arrazoia izan dira.

Tamalez, Nafarroan ere izan dugu halako gertakariak; are gehiago, esan daiteke gure historia-aren azken garaiko ezaugarria izan dela foru erki-degoko arduradun goren eta erakundeen ustelkeria; halako moduan non erakundeetako gorenko arduradunetatik hiru inputatuta egon diren eta bik zigorra jaso duten ustelkeria politikorekin zerikusia zuten kontuak tarteko. Izan ere, herritar guztien oroimenean dago oraindik Nafarroako Gobernuko lehendakari baten dimisioaren irudia, duela 15 urte, Nafarroan izan den askotari-ko gobernu bakarrean beren ilusioa jarri zuten dozenaka mila herritarren itxaropena zapuztuz.

Gaur egun, Espainiako bi alderdi handienekin loturiko balizko ustelkeria kasuak egunkariaren orriak betetzen dituzte egunero. Nafarroan, Cintruénigoko Udalaren kudeaketan izandako balizko irregulartasunen kasuak kezka eragin du Nafarroako gizartearen, ez baita ulertzen ikerketa eredugarri bat egiteko neurri politikoak ez hartzea, alderdiek ustelkeria ezabatzeko duten konpromisoaren adierazgarri, nahiz eta alderdi horietako kideak izan kasu horretan nahastuta daudenak.

Hori dela eta, XXI. mendeko sistema demokratiko batek, demokrazian sakondu nahi badu herritar guztien inplikazioaren eta parte-hartzearen bidez, zorrotza eta eraginkorra izan behar du egiaztatzen diren ustelkeria kasu guztiak ikertzeari, deuseztatzeari eta zigor eredugarriak ezartzeari dagokionez.

Hala, parlamentari honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, ezagutze aldera Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen ustelkeria kasuak errotik deuseztatze politikoa orokorrari dagokionez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bazterketarik gabeko elkarrizketa politiko eta sindikala abiaraz dezan, krisi ekonomikoari aurre egiteko politikei ekiteko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bazterketarik gabeko elkarrizketa politiko eta sindikala abiaraz dezan, krisi ekonomikoari aurre egiteko politikei ekiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramirez Errok eta Patxi Zabaleta Zabaletak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko ele-dunek, 2009ko otsailaren 26 eta 27an eginiko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorioz, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Joan den otsailaren 26an, ekonomiari buruzko jabeldura bat eztabaidatu zen, parlamentari-talde honen ekimenez. Saio hartan, talde guztiok eta Ekonomiako kontseilari Miranda jaunak aukera izan genuen ekonomiaren alorreko politika orokorrari buruz eztabaidatzeko eta gaur egun pairatzen dugun krisi ekonomikoari aurre egite aldera Gobernuak abiarazitako ekintza ezberdinak epaitzeko.

Hori horrela, parlamentu-talde honek adierazi zuen gogoeta egin beharra zegoela, Nafarroako Gobernuaren ekintzei dagokienez, bai forma bai eduki kontuez.

Formez denaz bezainbatean, eztabaidan zehar Nafarroa Bai parlamentu-taldeak bere kezka adierazi zuen, Nafarroako Gobernuak indar politiko eta

sozialen osotasunarekin solaskidetasunik ez izateagatik eta Nafarroako Lan Enpresen Elkartearekin behar bezalako adeitasunez jokatu ez izateagatik, kontuan izanik, adibidez, izan diren enplegu-planen sinaketatik kanpo utzia izan dela. Halaber, eztabaidan zehar ikusi zen badagoela kezkarik, Gobernuak ez dielako parlamentu-taldeein eman nahi izan haiek Gobernua kontrolatzeko daukaten zeregina bete ahal izateko zilegi duten informazioa; halaxe agertzen du legebiltzar honetako zerbitzu juridikoek prestatuturiko txosten juridikoak, bertan adierazten baita parlamentu-talde honek eskubidea duela Gobernu Kontseiluak onetsiriko dokumentuak jasotzeko, hala nola Nafarroako programazio ekonomikoa, zeina ukatu egin baitzaio Maiorga Ramirez Erro parlamentariari, edo zenbait informazio, Nasuinsa bezalako enpresa publikoei buruzkoak, orain arte José Ángel Aguirreben-goa Imaz parlamentariari ukatu egin zaizkionak.

Era berean, eztabaidan zehar iritziak adierazi ziren kooperatiba-formulak indartzeko neurriak hartu beharraz –gogoan izanik gaur egungo krisi ekonomikoko egoera–, sozietate anonimoak lan-sozietate anonimo bihurtzeko joera areagotu ahal izateaz, eta sozietate horiek eskain dezaketen enpleguaren berme bereziaz.

Hori guztia dela-eta, 2009ko otsailaren 26ko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorio gisa, parlamentu-talde honek honako erabaki-proposamena aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bazterketarik gabeko elkarrizketa politiko eta sindikala abiaraz dezan, krisi ekonomikoari aurre egiteko politikei zuzentasunez, demokratikotasunez, eraginkortasunez eta efizientziaz ekin ahal izateko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du parlamentu-taldeein dagokien informazio guztia helaraztera eta gardentasun-irizpide zorrotzeneri jarraituz jardutera, krisi ekonomikoari aurre egiteko politikei zuzentasunez, demokratikotasunez, eraginkortasunez eta efizientziaz ekin ahal izateko.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oztoporik gabeko harremanei ekin diezaien ANELekin, lan-sozietate ano-

nimoekin eta kooperatiben enpresa-jardueran diharduten guztiekin, enplegua indartzeko eta industria-bideragarritasuna ahalbidetzeko berarizko neurriak hartze aldera.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza- eta baliabide-

biderapenerako zerbitzu berezi bat sor dezan, enpresak kooperatiba-moldeen arabera antola daitezzen errazteko, aholkatzeko eta sustatzeko.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait lege alda ditzan, enpresa publikoetako zuzendaritza karguetan daudenek edo arduradun nagusiek ez dezaten jaso Gobernuko kontseilariak baino ordainsari handiagorik.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait lege alda ditzan, enpresa publikoetako zuzendaritza karguetan daudenek edo arduradun nagusiek ez dezaten jaso Gobernuko kontseilariak baino ordainsari handiagorik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako sektore publikoak behar duen berregituraketa austeritate irizpideetan oinarritu behar da, halako irizpideak ezinbestekoak baitira gizarteak bizi duen krisialdian.

Enpresa eta fundazio publikoek eta horien administratzaileek, administrazioaren zati diren

aldetik, ezarritako ildoak jarraitu behar diete eta zorroztasun, austeritate eta jarrera irregularrak ezabatzeko irizpideak onartu behar dituzte; izan ere, irizpide horiek, beti badira beharrezkoak, krisialdian azpimarratu egin behar dira, ez bakarrik funts publikoak modu zuzen eta egokian erabiltze aldera, bai eta administrazioa eredugarria izan dadin eta politikaren izen ona berreskuratze aldera.

Erabaki proposamena:

1. Enpresa publikoetan, fundazioetan, erakunde publikoetan edota kapitalaren % 50eko edo hortik gorako partaidetza publikoa duten erakundeetan zuzendaritzako edo ardura goreneko karguak betetzen dituzten pertsonak ezin izanen dute jaso urtero Nafarroako aurrekontuetan Gobernuko kontseilariatzat ezarritako ordainsarien parekoa baino soldata handiagorik.

2. Halaber, beste entitate, kontseilu edo enpresa edo entitate publikoen edo % 50eko edo hortik gorako partaidetza publikoa dutenen organo batzuetako kide izateagatik soldata arruntaz gain jaso ditzaketen sari ekonomikoak ezingo dute egin betetzen duten karguagatik jasotzen duten soldataren % 20 baino gehiago.

3. Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren lege aldaketak egin ditzan Nafarroako Administrazioari buruzko 15/2004 Foru Legean, Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legean edota maila bereko edo beheargoko edozein xedapenetan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPekin sinatu beharreko hitzarmenean kontusail bat jaso dezan, “Esperientziaren Ikasgela” izeneko ikastaro monografikoak ordaintze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPekin sinatu beharreko hitzarmenean kontusail bat jaso dezan, “Esperientziaren Ikasgela” izeneko ikastaro monografikoak ordaintze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, talde horren eledun gisa eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Arrosadiako eta Tuterako campusetan, badago “Esperientziaren Ikasgela” deritzona, non 50 urtetik gorako helduei Giza eta Gizarte Zientzien titulua irakasten

baitzaie. Ikasketa horiek 4 urtean zehar ematen dira. Ikasketetan diharduten gehienak pertsona erretiratuak dira; horrela, ba, matrikulazio-sariekin, 520 euro ingurukoak, kasu askotan diru-kontuetan sakrifizioak egitera behartzen dute, eta, beste kasu batzuetan, ikasketa horiek ezin egitea dakar-te.

“Esperientziaren Ikasgela” izeneko horretatik pasa diren pertsonak hagitik positibotzat jotzen dute bizipen hori; hainbestera, non Iruñeko eta Tuterako ikasle ohien elkarten bitartez ikastaro monografikoak eta ikerketa-taldeak antolatzen segitzen baitute, horiek guztiak elkarteetako pertsonak ordainduak.

Kontuan izanik “Esperientziaren Ikasgela”k lan-gintza sozial handia egiten duela pertsona erretiratuaren kolektiboarekin, eta hezkuntza-helburuetarako bat, nola den etengabeko prestakuntza, betetzen duela, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki-proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berriazko kontusail bat txerta dadin Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinatu beharreko hitzarmenean, xedetzat izanen duena hein batean ordaintzea “Esperientziaren Ikasgela” egitasmoaren barruan Iruñeko eta Tuterako campusetan eskaintzen diren jarduerak akademikoak eta ikastaro monografiko nahiz ikerketakoak.

Iruñean, 2009ko martxoaren 5ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur eskola publikoetan sartzeko arauak alda ditzan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita haur eskola publikoetan sartzeko arauak alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gobernuak abian ipini du Iruñeko haur eskola publikoetan 2009-2010 ikasturtean sartzeko eskabide-prozesua. Horri dagokionez, nabarmendu nahi genituzkeen zenbait kontu aipatu nahi genituzke. Lehenbizikoak zerikusia dauka eskabideak igortzeko epearekin: martxoaren 18an bukatzen da, eta epe-muga hori gero eta murriztaileagoa dela iruditzen zaigu. Hori horrela, ez dio ezertan laguntzen ikasle berriak matrikulatzeari.

Bestalde, atentzio berezia eman digu "Baldintza bereziak" atalak, non zenbait dokumentu eskatzen baitira; besteak beste, aurreikusitako erditze-eguna zehazten duen ziurtagiria. Adierazten denez, berandueneko jaiotza-data 2009ko apirila-

ren 26a da; hortaz, egun hori eta gero jaiotako guztiak kanpo gelditzen dira, eta, ezein kasutan ere, zerbitzu hori ezin izanen dute eskuratu hurrengo deialdira arte; hots, 2010eko irailera arte.

Pertsonaren berandueneko jaiotza-egunari buruzko muga horren bitartez, gure ustez berariaz ezartzen dira zenbait murriztapen, eta horrek pentsarazten digu egiazki bilatzen dela, alde batetik, urtean zehar jaiotakoentzako zerbitzua mugatzea, zerbitzu hori eskatzen duten familiek eginiko eskaerei baiezeko erantzuna eman gabe. Bestetik, denbora-muga hori ezarriz, sinetsarazten da behar bezalako erantzuna ematen zaiola eskaerari, nahiz eta, errealitatean, gertatzen baita egun horrez geroztik izandako jaiotzen kasuan familiei hurrengo ikasturtera arte itxaronarazten zaiela, edo familia horiek zentro pribatu batean plaza eskatzera behartuak direla. Azkenik, baliabide hori behar duten eta eskaera egin ondoren ezezkoa jasotzen duten familiak ia betikora behartuta suertatzen dira: gurasoetako bat (gehienetan, ama) etxean gelditzera, haurra zaintzeko.

Horrela, ba, lana eta familiako bizitza bateragarri egin eta seme-alaben heziketa nola antolatu askatasunez erabakitzeko bidean emakumeak emandako urratsak horrelako murriztapenekin egiten dute topo.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du haur eskola publikoetan sartzeko arauak alda ditzan, pertsonen jaiotza-egunaren gaineko epe-mugarik ezarri gabe. Epe-mugarik jartzekotan, jaiotzaren urte naturalarena hartuko da aintzat.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nabarmen luza dezan eskabideak igortzeko epea; kasuan kasuko urteko martxoaren amaierara arte, gutxienez ere.

Iruñean, 2009ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babes
sa eta elkartasuna adierazten baitie pertsona desagertuen sendiei, eta
bereziki M^a Puy Pérezen sendiari.**

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babes eta elkartasun baldintzagabea adierazten die pertsona desagertu guztien sendiei, eta une honetan, bereziki, M^a Puy Pérezen sendiari.

2. Nafarroako Parlamentuak txalogarritzat jotzen ditu lazo laranjaren eta hileroko elkarretaratzearen herritar-ekimenak, eta dei egiten du haietan ahalik eta pertsona gehienek parte har dezaten.”

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko ugalkortasun eta laguntza bidezko ugalketako unitatean teknika berriak ezartzeko prozesuari buruzkoa.*MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko ugalkortasun eta laguntza bidezko ugalketako unitatean teknika berriak ezartzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ahozko galderaren testua

2008ko aurrekontu orokorretan, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen zuzenketa bat onetsi zen, Bideko Ama Birjina Ospitalean ugalkortasun eta laguntza bidezko ugalketako unitate bat sortzeko.

2008ko martxoaren 13ko Osoko Bilkuran, Osasuneko kontseilari Kutz andreak hau adierazi zuen, ugalkortasun eta laguntza bidezko ugalketako unitatea dela-eta: "unitatea aurten bertan jarriko da abian, baina pixkanaka joanen da bere gain hartzen diagnosirako eta tratamendurako teknika horiek guztiak".

Hori dela eta, honako galdera egin nahi dut:

Zertan da, gaur egun, Bideko Ama Birjina Ospitaleko ugalkortasun eta laguntza bidezko ugalketako unitatean teknika berriak ezartzeko prozesua?

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko Nafarroan ingeles hiztunen hizkuntza erkidegorik dagoen, 2009ko lan eskaintza publikoan ingeleseko proba bat egitea beharrezkoa egiteko adinakoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroan ingeles hiztunen hizkuntza erkidegorik dagoen, 2009ko lan eskaintza publikoan ingeleseko proba bat egitea beharrezkoa egiteko adinakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak iragarri du 2009ko lan eskaintza publikoa, eta aurtengo berritasunik handiena da Gobernuak ingeleseko eta erabiltzaile mailako ofimatikako probak eginen dituela hautapen prozesuetan. Proba horiek lotuko dira bereziki A eta B mailako postuen hautapen prozesuekin.

Ez dira baztertzailleak izanen eta hautapen prozesu bakoitzean ezarritako puntuazio osoaren % 10 bitarte emanen ahal da ingeleseko ezagutzagatik, eta beste % 10 ofimatikari buruzko ezagutzagatik. Hau da, "ez da punturik kenduko ingelese ez jakiteagatik, baina hura menperatzea erabakigarria izan daiteke lanpostu bat betetzeko", Javier Caballero kontseilariak prentsaurrekoan azaldu zuenez.

Galderaren testua

Ba al da Nafarroan ingeles hiztunen hizkuntza erkidegorik, 2009ko lan eskaintza publikoan ingeleseko proba bat egitea beharrezkoa egiteko adinakoa?

Iruñean, 2009ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Castejónko Udalak eta Eléctrica de la Ribera del Ebro, S.A.k herri horretako zentral termikoen hirilur kontribuzioari buruz sinatutako akordioari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Castejónko Udalak eta Eléctrica de la Ribera del Ebro, S.A.k herri horretako zentral termikoen hirilur kontribuzioari buruz sinatutako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Hedabideen bidez ezagutu dugu iragan 2008ko maiatzaren 15ean Castejónko Udalak eta Eléctrica de la Ribera del Ebro, S.A.k herri horretako zentral termikoen hirilur kontribuzioaren hurrengo 20 urteetako likidazioari buruz sinatutako akordioa.

Badaude arrazoiak akordio horren legezkotasuna zalantzan jartzeko. Bere klausulen artean bada bat ezartzen duena udalak urtero likidatuko duela 395.000 euroko zenbateko finkoa zentralak dituen taldeetako bakoitzagatik, eta ondokoa gehitzen da: horretarako, udalak erabiliko ditu eskura dituen zerga-kuotan eragina duten aldagai edo parametroak, edota Nafarroako Zerga Ogasunarekin kudeatuko ditu ondasunen balioari aplikatzekoak zaizkionak, halako moduz non urteko kuotak finko mantenduko baitiren aipaturiko zenbatekoetan. Ondorioz, 20 urteko epean izan ditzakeen aldaketak zentralaren taldeen katastroko balioan, aplikatzekoak diren zerga-tipoetan eta/edo tributua likidatzeko kontuan hartu beharko litzatekeen beste edozein parametrotan, ez dira kontuan hartuko, aurreko lerrokadan deskribaturiko akordioak lehentasuna izanen baitu.”

Aurrekoa ikusita, bidezkoa da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari jaunak galdera honi erantzutea:

Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuak parte hartu al du akordio horren prestaketan edo ba al zuen horren berri aldeztu? Eta, edonola ere, ba al du asmorik akordio hori bete dadin laguntzeko eta Nafarroa osorako hirilur kontribuzioaren katastroko balioa eta zerga-tipoak horren arabera baldintzatzeko?

Iruñean, 2009ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, 10/2008 Foru Legea onetsi ondotik haurdunaldia nahita eteteari buruz Osasun Departamentuak emandako urratsei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde andreak aurkeztutako galdera, 10/2008 Foru Legea onetsi ondotik haurdunaldia nahita eteteari buruz Osasun Departamentuak emandako urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer urrats egin ditu Osasun Departamentuak haurdunaldia nahita eten ahal izan dadin Nafarroako Parlamentuak maiatzaren 30eko 10/2008 Foru Legea onetsi ondotik?

Iruñean, 2009ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Osasun Departamentuak Zangozako osasun etxeko errotulazioa gaztelania hutsean jartzeko arrazoiari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak Zangozako osasun etxeko errotulazioa gaztelania hutsean jartzeko arrazoiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zangozan inauguratu berri den Osasun Etxeak gaztelania hutsezko errotulazioa dauka.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Zer arrazoi dela-eta ez du zaindu Osasun Departamentuak gure erkidegoko berezko bi hizkuntzetako errotulazioa, eta soil-soilik gaztelaniazko errotulua paratu da Zangozako Osasun Etxean?

Iruñean, 2009ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, A ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, A ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Hezkuntza sisteman hizkuntza eredu ezberdinak daude: G, A, O, British, TIL, eta eredu eleanitza, azken hau, aurten indarrean paratua. Eredu berriak ezarri eta ezarri ari da Hezkuntza Departamentua. Jakin nahi dugu ikasleen hizkuntza maila zein den jakiteko azterketarik egin denentz, batez ere orain arte izan diren ereduetan.

Ikastetxe publikoetako A ereduko ikasleek DBH amaitzean zein da lortzen duten hizkuntza-jakintza maila gaztelera, euskara eta ingelesari dagokionez? Noiz egin dira azterketak jakintza-maila neurtzeko? Nork egin ditu?

Ondoko koadroa betetzea eskatzen da:

	A1	A2	B1	B2
GAZTELERA				
EUSKARA				
INGELESA				

Iruñean, 2009ko otsailaren 27a

Foru parlamentaria Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, B ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, B ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudiaren xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaión.

Nafarroako Hezkuntza sisteman hizkuntza eredu ezberdinak daude: G, A, D, British, TIL, eta eredu eleanitza, azken hau, aurten indarrean paratua. Eredu berriak ezarri eta ezarri ari da Hezkuntza Departamentua. Jakin nahi dugu ikasleen hizkuntza maila zein den jakiteko azterketarik egin denentz, batez ere orain arte izan diren ereduetan.

Ikastetxe publikoetako 8 ereduko ikasleek DBH amaitzean zein da lortzen duten hizkuntza-jakintza maila gaztelera, euskara eta ingelesari dagokionez? Noiz egin dira azterketak jakintza-maila neurtzeko? Nork egin ditu?

Ondoko koadroa betetzea eskatzen da:

	A1	A2	B1	B2
GAZTELERA				
EUSKARA				
INGELES				

Iruñean, 2009ko otsailaren 27a

Foru parlamentaria Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, British ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, British ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudiaren xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaión.

Nafarroako Hezkuntza sisteman hizkuntza eredu ezberdinak daude: G, A, O, British, TIL, eta eredu eleanitza, azken hau, aurten indarrean paratua. Eredu berriak ezarri eta ezarri ari da Hezkuntza Departamentua. Jakin nahi dugu ikasleen hizkuntza maila zein den jakiteko azterketarik egin denentz, batez ere orain arte izan diren ereduetan.

Ikastetxe publikoetako British ereduko ikasleek DBH amaitzean zein da lortzen duten hizkuntza-jakintza maila gaztelera, euskara eta ingelesari dagokionez? Noiz egin. dira azterketak jakintza-maila neurtzeko? Nork egin ditu?

Ondoko koadroa betetzea eskatzen da:

	A1	A2	B1	B2
GAZTELERA				
INGELESA				

Iruñean, 2009ko otsailaren 27a

Foru parlamentaria Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, D ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, D ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudiaren xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaión.

Nafarroako Hezkuntza sisteman hizkuntza eredu ezberdinak daude: G, A, D, British, TIL, eta eredu eleanitza, azken hau, aurten indarrean paratua. Eredu berriak ezarri eta ezarri ari da Hezkuntza Departamentua. Jakin nahi dugu ikasleen hizkuntza maila zein den jakiteko azterketarik egin denentz, batez ere orain arte izan diren ereduetan.

Ikastetxe publikoetako D ereduko ikasleek DBH amaitzean zein da lortzen duten hizkuntza-jakintza maila gaztelera, euskara eta ingelesari dagokionez? Noiz egin dira azterketak jakintza-maila neurtzeko? Nork egin ditu?

Ondoko koadroa betetzea eskatzen da:

	A1	A2	B1	B2
GAZTELERA				
EUSKARA				
INGELESA				

Iruñean, 2009ko otsailaren 27a

Foru parlamentaria Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, G ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, G ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek lortzen duten gaztelania, euskara eta ingeles mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudiaren xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaión.

Nafarroako Hezkuntza sisteman hizkuntza eredu ezberdinak daude: G, A, D, British, TIL, eta eredu eleanitza, azken hau, aurten indarrean paratua. Eredu berriak ezarri eta ezarri ari da Hezkuntza Departamentua. Jakin nahi dugu ikasleen hizkuntza maila zein den jakiteko azterketarik egin denentz, batez ere orain arte izan diren ereduetan.

Ikastetxe publikoetako G ereduko ikasleek DBH amaitzean zein da lortzen duten hizkuntza-jakintza maila gaztelera, euskara eta ingelesari dagokionez? Noiz egin dira azterketak jakintza-maila neurtzeko? Nork egin ditu?

Ondoko koadroa betetzea eskatzen da:

	A1	A2	B1	B2
GAZTELERA				
EUSKARA				
INGELESA				

Iruñean, 2009ko otsailaren 27a

Foru parlamentaria Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko ea La Olivako monasterioko fraide zistertarrei monasterioaren lurren eta instalazioen erabilera laga zaien.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea La Olivako monasterioko fraide zistertarrei monasterioaren lurren eta instalazioen erabilera laga zaien.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak inoiz lagapenik egin al die La Olivako monasterioko fraide zistertarrei beraiek izan daitezten lagapen ekonomikoaren eskubideak kobratu edo haien onurak jasoko dituztenak?

Iruñean, 2009ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Nafarroako herrietan dauden karobie buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako herrietan dauden karobie buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

* Zenbat karobi daude Nafarroako herrietan?

* Herriz herri eta jabez jabe banakatuta adieraz bitez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko nola egiten den Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen arteko banaketa, zergadunak bi laukitxoak markatzen dituenan.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko nola egiten den Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen arteko banaketa, zergadunak bi laukitxoak markatzen dituenan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du eta idatziz erantzun diezaioten eskatzen du:

Nafarroako zergadunek urtero beren PFEZ aitortpena aurkeztean "gizarte-intereseko beste

xede batzuk" laukitxoan markaturiko tributu-diruen erabilerari buruz 2009ko otsailaren 24an Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Nafarroako Parlamentuan eginiko agerraldian, adierazi zuen Nafarroako zergadunek aukera zeukatela aldi berean markatzeko bai Eliza Katolikoarentzako laukitxoak bai "gizarte-intereseko beste xede batzuk" laukitxoak.

Nafarroan, PFEZaren azken zergaldian, 20.335 zergadunek markatu zituzten bi laukitxoak (zergadunen % 4,39). Diru horren zenbatekoa 76.838.356, 82 euro da; hots, kuota osoaren % 5,19.

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

- Nafarroako zergadunak bi laukitxoak markatzea erabakitzen duenean, zein da laukitxo bakoitzera, "Eliza Katolikoa" eta "gizarte-intereseko beste xede batzuk", bideratzen den diru-banaketa, Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari ziurtagiriz frogatzen diona?

- Zer lege-araubidek edo arauk ezartzen du Nafarroako Foru Komunitatean horrela egin behar dela banaketa?

Iruñean, 2009ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, eremu mistoan eta euskaldunean irrati-frekuentziak gaitzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, eremu mistoan eta euskaldunean irrati-frekuentziak gaitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Erakundeekiko Harremanetarako

Departamentuko kontseilari Alberto Catalán Higuera jaunari, idatziz erantzun dezan:

Irrati-hedapenerako lizentzien emakidari buruz Nafarroako Arartekoak eginiko informazio-eskaerari Nafarroako Gobernuko Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Alberto Catalán Higuera jaunak 2008ko apirilaren 17an emandako erantzunean, kontseilariak adierazten zion, besteak beste, posible zela Plan Tekniko Nazionalean Espainia osorako aurreikusitako irrati-hedatzaileen kopurua handitzea eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari eskatzea eskualde horretan (hots, eremu mistoan eta eremu euskaldunean) teknikoki posibleak diren frekuentzia guztiak eskuragarri jar ditzan.

Hori horrela, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Egin al du eskaera, eremu misto eta euskaldunetarako teknikoki posibleak diren frekuentzia guztiak eskuragarri jar daitezela?

– Zein izan da zuzemen horien emaitza?

Iruñean, 2009ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, bidezainen etxeak Altsasuko Udalaren esku uzteari buruzkoa.

GALDERA ALDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Aldatzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko galdera, bidezainen etxeak Altsasuko Udalaren esku uzteari buruzkoa, eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak erantzun dezan Ekono-

mia eta Ogasun Batzordean. Galdera 2009ko otsailaren 27ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko ea krisiaren aurkako neurriak hartzean kontuan hartu ote den generoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko galdera, jakiteko ea krisiaren aurkako neurriak hartzean kontuan hartu ote den generoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea. Galdera

hori 2009ko otsailaren 27ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Museoen Foru Legeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Museoen Foru Legeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko noiz igorriko duen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura Museoen Foru Legea. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Museoen foru legea Parlamentuan aurkeztuko da horretarako behar diren izapide guztiak betetzen ditugunean eta une horretara arte hura egite-

ko eskatu ditugun gomendio guztiak txertatzen dizkiogunean.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak jada agiri bat prestatu du, Nafarroako Kulturaren Kontseiluak 2008ko ekainaren 11n onetsia. Halaber, hilabete horretan dokumentua Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari igorri zitzaion, berrius zezan. Irailean, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko arduradun juridikoek zenbait zehaztapen egin zituzten dokumentu hori zela eta. Une honetan, zehaztapen horiek agirian nola txertatu ari gara aztertzen, zertarako eta udalen premietarako ego-kiagoa den eta Nafarroako museo-esparrua erregulatzeko behar diren helburuak eta jarraibideak mantenduko dituen testu bat lortu ahal izateko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako dokumentu ondareari buruzko Foru Legea Parlamentuan aurkezteko epeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako dokumentu ondareari buruzko Foru Legea Parlamentuan aurkezteko epeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko noiz igorriko duen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura Dokumentu Ondareari buruzko Foru Legea. Hona

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako dokumentu-ondareari buruz dago-kion guztia ondoko lege-testuetan jasota dago:

1. Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legea.

2. Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legea.

Beraz, arlo hori arautzen duten arauak aurkezturik eta onetsirik daude.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ez duen ordaindu 2007ko maiatzeko uholdeek Etxalarren eragindako kalteen gastuen %100.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ez duen ordaindu 2007ko maiatzeko uholdeek Etxalarren eragindako kalteen gastuen %100.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ez

duen ordaindu 2007ko maiatzeko uholdeek Etxalarren eragindako kalteen gastuen % 100. Hona Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna:

2007ko maiatzean Nafarroako eskualde batzuetan izan ziren uholdeen ondoren, maiatzaren 16ko 17/2007 Foru Legea onetsi zen, inoiz ez bezain azkar. Hartan ezarri zen uholdeek eragindako kalteen gastuen % 100 ordainduko zirela. Lege horren ondorioz, hitzarmenak sinatu ziren uholdeek erasandako toki entitateekin jarduteko eta obrak finantzatzeko.

Zehazki, abuztuaren 3ko 314/2007 Foru Aginduaren bitartez, Nafarroako Gobernuaren eta Etxalarko Udalaren arteko hitzarmenaren testua onetsi zen, eta hartan, 2007ko maiatzean izandako aparteko uholdeek erasandako oinarritzko toki azpiegiturak konpontzeko dirulaguntzaren oinarriak zehaztu ziren.

Hitzarmenaren bigarren puntuan jasotzen du 2007rako Nafarroako Gobernuak ekarpen bat eginen diola Etxalarko Udalari, 213.970 eurokoa. Dirulaguntza hori 2007rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jaso zen eta guztiz ordaindu da Toki

Administrazioko zuzendari nagusiaren 2008ko martxoaren 11ko Ebazpenaren bitartez.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Toki Administrazioko Departamentuko kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday